

deko itsasbasterretan egiten dutela sarritan heuren karnata (kasu honetan txixarro kumea izan ohi da), ezelango traba barik, noski.

3. Azkenik, lebatz eta besiguari dagokionez, ihaz 60 lizentzia eman ziren, bai, baina artikuluan dioanaren alderantziz, Bermeoko legazaleek ez zuten bat ere eskuratu. Denak Hondarrabiako legazaleen artean banandu ziren, Madrileko Administrazioaren aginduz.

Aurten oraindino 10 lizentzia gutxiago eman du Bruselasek, hau da, 50 bakarrik, eta ihaz bezela, gatazka haundi bat sortu da Hondarrabi eta Bermeotarren artean, baina, azkenean, denak aurtengoz Hondarrabitarren eskuetan geldituko dira, Bermeotarren arazoa konpontzeko Bruselasetik tratu hobe baten zai.

Guzti honen konklusio gisa esan dezakegu Ipar eta Hego arteko arraintzaileen ezin-ikusia guztiz lasaitu dela azken urtean antxoa eta atunetako sektorean, eta elkarganako erlazio normal batetara heltzen doazela. Haatik, ez da berdin gertatzen legazaleen artean, gatazka, batez ere, Donibandar eta Hondarrabitarren artean dagoelarik. Eta ezin da esan kasu honetan Donibandarrena denik errua.

Beste barik, hartu, Jauna, nire agurrik zintzoena.

Antonio Perez Bilbao

Piarres Ehuiatei jaunari ihardespena

JAKIN IO.ean «Iparraldeko euskal idazleak, gaur» izenburuz egin duzun lanean eman dituzun eritzi eta xifra batzu hauzitan jartzera natorkizu. Baina horretara pasa aurretik, Iparraldeko euskal idazleez egin diguzun imentarioagatik zorionak eman nahi dizkizut.

Baina goazen harira.

Bistan da, eta behin eta berriz aitortzen duzu, «Euskal Idazleak, Gaur» nere liburua begien aurrean duzularik burutu duzula zure idazlan hori. Eta Iparraldeko idazkintzaren bizitasuna frogatu nahian zabiltzanez, nik liburu horretan ematen dudan ipar idazle-kopuruarekin ez zatoz bat. Gutiegi aipatzen ditut, zure ustetan. Izan ere, nik hogeit bat haintzat hartzen ditudan bitartean, zuk larogetik gora kontsideratzen dituzu idazle. Erizpide kontua da hori, badakizu. Nik, «sensu stricto», metodologia jakin bat jarraituz, jokatu dut, eta zuk oso zabal, nere ustez zabalegi, erizpide maximalistaz. «Euskal Idazleak, Gaur» liburuaren 70 orrialdean aipatzen dudanez, hiru erizpide gurutzatzen ditut, idazlea nor den erabakitzeko. Zuretzat, ostera, 25 artikulua idaztea aski da nonbait idazletzat jo ahal izateko. Zure erizpide horrekin, bistan denez, askoz ere idazle gehiago ateratzen zaizkigu.

Eztabaidagarri litzateke, halere, aipatzen dituzun horiek denak idazle diren ala ez. Nere ustez ez. Ez dago *hainbeste idazlerik* Ipar Euskal H&

rrian. Nere azterketetz aparte, froga bat ekarriko dizut: Euskaltzaindiaren Bergarako Biltzar Nagusirako egin inkestetako bat gaurko idazleei zuzendua izan zen. Idazleen hautapen kontuan, Euskaltzaindiaren Soziologi Batzordearen eritzian, erizpide oso zabalez, ahalik eta zabalenez jokatuta, 280 bat hartu ziren idazletzat denetara, eta horietatik 40 bat Iparraldekoak. Nekez jo dezakegu hortik gora.

Dena den, erizpideak gorabehera, eta besteak beste, ateratzen duzun ondorio pare bat oinatrian biziaturik dago.

1900-1936 urtealdi horretan, Iparraldean 13, Bizkaian 28 eta Gipuzkoan 51 idazle kontatzen ditut nik, nere erizpideen arabera. Iparraldekoak 60ra pasatzen dita zure kontuetan. Ongi da. Baina ez ondorio hau: «Bizkaiko 28 izenak eta Gipuzkoako 51k gainditzen ditugu». Konparaketa honek ez du zentzurik. Arrazoi sinple bategatik: Iparraldeko idazleen kopurua gehitu egin duzu zure kriterioen araberrako idazleekin, baina Bizkaikoei eta Gipuzkoakoei ez diezu erantsi erizpide berarekin gehitu beharrekoak. Zure kriterio horrekin, zenbat «idazle» gehiago ez ote dago Bizkaian eta Gipuzkoan?

Aurrekoaren bizio bera du idazle/hiztun konparaketak ere. Zure idazle-kopuruarekin atera duzu Iparraldekoen idazle/hiztun erlazioa. Bego. Baina konparaketak ez du balio: erizpide beraren ondorioak ez bait dizkiezu gainerakoei aplikatu.

Laburzki esanda, zure idazle-erizpide hori oso eztabaidagarritzat jotzen dut, eta nik neuk azter-tresna bezala ez nuke onartuko. Kontraktorik demostratzen ez zaidan bitartean, nik erabilia egokiagoa iruditzen zait, eta Literaturaren Soziologian erabilia da, gainera. Baina batez ere ez da zilegi, ondorioak ateratzeko orduan, bi erizpide-mota nahastea, konparaketa eta portzentaiak oro faltseatzen bait ditu, kasu honetan ere gertatzen denez.

Joan Mari Torrealdai